

## AUTONOMIZAZIO prozesua haurtzaroan

### Jardunbide egokiak FAMILIAN



## Aurkezpena

Esku-hartze Komunitarioko Zerbitzuak, herritarren artean, osasuna sustatzeko eta biztanleriaren bizitza kalitatea zein gizarte ongizatea hobetzeko helburua dauka. Horretarako, **ADIMEN EMOZIONALA ETA BIZIKIDETZA** Programarekin, haurrak direnetik beren adimen emozionala garatzeko gai izan daitezela eta bizitza kudeatzen ikas dezatela lortu nahi du. Beren buruarekiko kontzienteago izateko modu kreatiboak ikasiz, gatazkei aurre eginez, emozioak erregulatuz, modu kritikoan pentsatuz, eta horrela, bizi diren gizarteko kide aktibo eta arduratsuak izateko baliabideak dituzten pertsona helduak izatera iristea dauka helburu programak.

AUTONOMIAREN gaiari dagokionez, 1go mailan, tailer praktiko bat egin da, bertan ikasleek autonomia-kontzeptua ezagutzea eta etxean eta ikasgelan dituzten erantzukizunak zeintzuk diren aztertu eta barneratzea lortu nahi izan da.

**FAMILIAN** ikasten direnez bizitza osoan izango ditugun **OHITURA** eta balio gehienak, garrantzitsua da familiak ikastetxean egiten den lan horri babesa ematea.

Autonomia bizitza osorako ikaskuntza-oinarria da. Haurrak beren ekintzengatiko erantzukizuna beraiei dagokiela jabetzen diren neurrian indartu egiten da. Baina horretarako ezinbestekoa da **familiak bere seme-alabak balio horietan oinarrituta hezteko konpromisoa hartzea, beren bizitzetarako independentzia-ohiturak irakatsiz.**



## Haur-autonomia

Zenbaitetan, presaka ibiltzeak jokaldi makurrak eragiten ditu; beste batzuetan, gurasoen babesteko grinak neska-mutilei porrot egin dezaketen zereginak azaltzea eragozten du, eta kasu jakin batzuetan, inkontzienteki, beldurrak nagusitu egiten dira eta baztertu egiten dugu seme-alabek egoera zailei aurre egin behar izatea, pertsona independente gisa garatzea lortzeko beharrezkoa den ikaskuntza ezabatuz.

Autonomiarako hezteak, garapenaren adin goiztiarretatik ohiturak irakastea eta trebetasunak sustatzea dakar.

Ohiturak denboran zehar errepikatzen diren jokabide-jarraibideak dira, eta errepikatzen ditugun heinean gehiago sendotzea lortuko dugu; pertseberantzia eta pazientzia, hori lortzeko izan beharko ditugun trebetasunak dira.

Argi izan behar dugu adingabeei esperimintatzeko, oker egoteko, huts egiteko edo asmatzeko aukera ematea oso garrantzitsua dela, hori guztia lortzeko denbora beharko dela jakinik, adingabe bakoitzaren adinaren eta ikaskuntza-gaitasunaren arabera.

### GOGOAN IZAN adingabeek...

- ✓ *Etxean edo ikastetxean garatuko dituzten eguneroko jarduera txikien bitartez ikasten dutela autonomo izaten.*
- ✓ *Hazi nahi dutela eta helduak direla frogatu nahi dutela une oro.*
- ✓ *Helduek beren trebetasunak eta beren ahaleginaren balioa frogatzen lagunduko dieten zereginak esleitzea behar dutela.*



## ZEREGINAK ESLEITZEKO GARAIAN GARRANTZITSUA DA...

### 😊 HAIEN AUTOESTIMUA SUSTATZEA

Aurrerapenak eta lorpenak indartzeak beren buruaren irudi positiboa emango die.

### 😊 HAIEN DENBORAK ERRESPETATZEA

Adingabe bakoitza desberdina da, eta beraz, ahalegina egin behar da itxaropen neurrigabeak edota beste neska edo mutil batzuen denboretan oinarritutakoak ez izateko.

### 😊 HAIEN POSIBILITATEEN ARABERA JARDUTEA

Haien posibilitateen gainera edo azpitik exijitzea kaltegarria izan daiteke sustatu nahi dugunarekin. Are gehiago, gehiegi exijitzen badugu, frustrazioa eragin dezakegu.

### 😊 ETIKETA GISAKO KALIFIKATIBOAK EZ ERABILTZEA

Gaizki egin badu, ez esan adingabeari “txarra” dela, zeregin hori ez du zuzen egin eta hobeto egin dezake, besterik ez. Etengabe entzuten badu “traketsa” dela, azkenean sinetsi egin dezake eta traketsa balitz bezala jardun dezake.

### 😊 DENBORA GORDETZEA ETA PLANGINTZA EGITEA

Oro har, adingabeei gauzak egiten irakastea guk geuk gauza horiek egitea baino motelagoa eta neketsuagoa da beti. Horregatik, funtsezkoa da haiengan jarduerak eskuordetzen ditugunean, guk alde zuzena erretik plangintza bat egitea.

